- Etorkinen integrazioaren ondorioz Hizkuntza Normalkuntza Programetako arduradunei sortzen zaizkien kezka inguruko lanak.

4.1.3.4.2.-Hizkuntza trataera bateratua

Ikastetxeak

Hizkuntza Trataera Bateratu programako proiektuak aurkeztu dituzten ikastetxeak hauek dira:

- Urola-kostako HHI
- Floreaga ikastetxea (Azkoitia)

Ikastetxe bakoitzak beren ezaugarrien arabera egindako proiektua du. Berritzeguneko BHko hizkuntza eta gizarteko aholkulariak proiektu hauek eskatzen duten prestakuntza eta aholkularitza egingo du ikastetxeetan.

4.2.- ETAPAKA

4.2.1.- HH ETA LH

Ikastetxeak:

Ikastetxeek dituzten proiektu gehienak Lehentasunezko Programetan sartuta daude eta horietatki aparte ez dago proiekturik.

Mintegiak:

Bailaran funtzionatuko duten Haur eta Lehen Hezkuntzari lotutako mintegiak Programen atalean aipatuta daude eta LH ikastetxeetako zuzendarien mintegia geroago aipatuko da. Martxan jarriko den mintegia hau da :

MUSIKA MINTEGIA

- Azken sei ikasturtetan bailarako musikako irakasleak biltzen hasi ziren, ikastaroak antolatu ziren eta mintegi bezala hasi ziren funtzionatzen. 2007-08 ikasturtean ere, talde honek jarraituko du funtzionatzen.
- Tratatu diren gaiak:
 - Orff-instrumentuen ikastaroa Carles Bermisekin
 - Dantzak landu
 - Kanta bilduma aurkibidea edin CDen arabera.
 - Informatika arloa sakondu
 - Behar bereziak dituzten umeekin musika nola landu gaia aztertu (aholkulari baten bidez).
- Mintegiaren bilera eguna eta ordutegia: hamabostean behin, ostegunetan 2,30tan.

ESKOLA TXIKIETAKO TALDEA

- Zonako Eskola Txikiek bilerak egingo dituzte, ohiko administrazio gaiak tratatzeko eta beste gai pedagogikoak ere lantzeko:
Proiektu Telematikoak: Pelutxe, eskolen arteko bloga...

Metodologia: adin desberdinetako ikasleak atenditzeko, konstruktibismoa
Eskola Txikietako Hezkuntza Proiektua.

INGELESA MINTEGIA

Azkeneko sei ikasturteetan, Inebi Programa bailarako hainbat ikastetxeetan ezarri da. Jarraipena moduan eta programaren ezarpena sendotzeko, mintegi honekin jarraitzea erabaki da.

Gaiak:

- Curriculum berriaren alderdi orokorrak aztertu.
- LHko 1. Zikloko Ingelesa arloa, sakonki landu.
- LHko 1. Zikloko helburuak, edukiak eta ebaluazio irizpideak curriculum berriaren arabera finkatu.
- Eguneroko praktika beste kideekin konpartitu.
- IKTren erabilera indartu.

Mintegi saioak, hamabostero izango dira, astelehenetan, 14.30-16.30 bitartean, guztira 30 ordu osatuz.

Horretaz gain, ikasturtean zehar eta bailaran sortzen ari diren eskaera batzuei atenditzeko mintegiak antola daitezke.

Ikastaroak:

-Orff-instrumentuen ikastaroa. LHko Musika irakasleentzat. Irailan. 20 ordu. Carles Bernúsekin.

-Ingelesa hizkuntza lantzen. Azken hiru ikasturtetan bezala, ingelesa hizkuntza lantzeko ikastaro bat antolatu dugu HH, LH eta DBHko ingeleseko irakasleei zuzenduta.

Ikastaro saioak, hamabostero izango dira, astelehenetan, 14.30-16.30 bitartean, guztira 30 ordu osatuz.

-Ipuinak kontatzen ikasten ingeleseko gelan. HH eta LHko ingeleseko irakasleei zuzenduta. "Hellow Yellow" antzerki taldea. Hiru saio, 2 ordukoak. Guztira 6 ordu. Lehenengo lauhilabetean burutzeko.

Aurrez aipatutako lan taldeen partaideek planteatzen badute edota ikastetxeetatik etor daitezkeen eskaeren araberrako ikastaroak antolatzeko posibilitatea aurreikusten da.

Besteak:

- Proiektu telematikoak (Gipuzkoaren Zehar, Pelutxe...): koordinazio bileretara joan, zonaldean lagundu...
- Ikastetxeetan egindako beste zenbait ekintzak: kanpoko pertsonen ikastetxeetan egin duten esku-hartzeen kudeaketa, material desberdinak prestatu eta eraman...
- ISElak proposatutako lana: ebaluazio diagnostikorako itemak egitea.

4.2.2- BIGARREN HEZKUNTZA (DBH – DBHO)

- Ikastetxeak

BHko etapako aholkulariek BHko ikastetxeen Prestakuntza zein Berrikuntza proiektuetan lagunduko dute: proiektuen diseinuan lagundu, hala eskatzen dutenean, aholkularitza eta prestakuntza eman, proiektuen jarraipena egin eta ondorioak ateratzen lagunduko diete ikastetxeetako zuzendaritza taldeei.

Zientzia/ Teknologiako aholkulariak eta Hizkuntza/ Gizarteko aholkulariak Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek egiten dizkieten eskaerei erantzungo diete. Eskaera hauei erantzuteko BHko arlo guztietan eta **Berrikuntza departamentuak sustatzen dituen programetan** prestakuntza eta aholkularitza eskaintzen dute. Etapako aholkulariek programako aholkulariek ez dituzten programa guztien ardura dute bere gain:

- *Bizikidetza*
- *Hizkuntza Trataera Bateratua*
- *Europar Dimentsioa:*
- *Kulturarteko hezkuntza*
- *Hezkuntza Zientifikoa*
- *Curriculum Berria*

Curriculum Ezberdintzeko taldeetan dauden irakasleei jarraipen eta laguntza eskainiko diegu, Zientzia/ Teknologiako aholkulariak bere esparruan eta Zientzia/ Teknologiako aholkulariak berean.

Ikasle etorkinen hizkuntzaren irakaskuntzan irakasleek behar duten aholkularitza eta prestakuntza Hizkuntza eta Gizarteko aholkulariak emango die, horretarako hizkuntza indartzean diharduten irakasle talde bat bilduko da.

Berriazko Proiektuen jarraipena, aholkularitza eta ebaluazioa egingo dugu BHko bi aholkularien artean. Honetarako ikasturtean zehar proiektuaren arduradunarekin eta orientatzailearekin bilduko gara.

Etapako aholkulariek BHko arloetako alderdi curricular eta didaktikoetan laguntza eta aholkularitza emango dute: programazioetan lagunduz, materialak aholkatuz... Zientzia eta Teknologiako aholkularia zientzia eremuko arloez arduratuko da. Hizkuntza eta Gizarteko aholkularia bere eremuko arloez arduratuko da.

Programetatik kanpo ditugun eskaerei ere erantzuna emango diegu. Ikastetxeek proiektuen deialditik at beste proiektuak ere gauzatzen dituzte. Etapako aholkulariek aholkularitza eta prestakuntza emango diete proiektu hauek gauzatu ahal izateko.

4.2.3.-PROIEKTUAK

HERRIA	IKASTETXEA	FORM. PROIEK.TUA	BERRIK. PROIEKTU	HNP	ERREFERENT
Aizarnazabal	Basakaiz		-Curriculum berria INEBI proiektuan -Eskola txikien arteko bloga. -Pelutxeak, proiektu telekolaboratiboa		Uxue Berridi
Aia	Lardizabal		-Curriculum berria INEBI proiektuan		Jesus Mari
	Andatza		-Curriculum berria INEBI proiektuan		Uxue
Zestoa	Zestoa HI	B-Gure hezkuntza jarduera erronka berrietara egokitzen. A-Educate para vivir y convivir saludablemente		x	Juanma
	Arroa LH		-“Pelutxeak” proiektu telekolaboratiboa -Curriculum berria INEBI proiektuan -Eskola txikien arteko bloga		Uxue
	Aizarna LH		-“Pelutxeak” proiektu telekolaboratiboa -Curriculum berria INEBI proiektua -Eskola txikien arteko bloga		Uxue
Getaria	Iturzaeta LH	B-LHko ikasleen ebaluaketa txostenak informatizatu. -Curriculum berria ezagutu eta ikastetxeari egokitu.	-Lagunarteko hizkera jolasetan. -Curriculum berria INEBI proiektuan - Ahozko hizkuntzaren estimulazio goiztiarra		Jesus
Orio	Zaragueta LH		-Proiektu telematikoak. -Curriculum berria INEBI proiektuan.		Juanma

Errezil	San Martin LH	B-Curriculum berria, konpetentziak.	-Curriculum berria INEBI proiektuan		Josune
Zarautz	Orokietia LH		-Curriculum berria INEBI proiektuan. -Pelutxe, proiektu telekolaboratiboa	x	Txomin
	Lizardi BH		-Arbel elektronikorako materiala zientzietan (euskaraz eta ingeleraz) -Arbel elektronikoaren ezarpena zientzietan.	x	Edurne
	Antoniano			x	Txaro
	M.Inmakulada LH-BH			x	Juanma
	La Salle	B-Tutoretza denon eginkizuna B-La adopción y la escuela -El programa Moodle en secundaria	-DBHrako metodologi esparru berria (Pro.Globala) -Proyecto lector en primaria. -Programa cuéntame		Jesus
	Zarautz HHI		-Hizkuntza trataera bateratua.	x	Nerea
Zumaia	Zumaia LH	B-Irakasleen prestakuntza B-Zuzendaritza taldearen formakuntza B-Aholkularitza eskolan	-Bizikidetzeta: Gatazken eraldapena. -IKT-ak curriculumean integratzeko plana	x	Jesus
	Zumaia BH			x	Edurne
	Oikia LH		-Curriculum berria INEBI proiektuan -Pelutxe proiektu telekolaboratiboa -Eskola txikien arteko bloga		Uxue
	Maria ta Jose		-Harremanetan gauden pertsonak gara. (Proiektu globala)	x	Nerea

Azkoitia	Xabier Munibe LH		-Curricum berria INEBI proiektuan	x	Josune
	Xabier Munibe BH			x	Nerea
	Floreaga		-Hizkuntza trataera bateratua -Irakurketa eta idazketarako estrategiak -Moodle	x	Nerea
Azpeitia	Karmelo Etxegarai	B-IKT B-Curriculum berria	-Eskola inklusiboa	x	Juanma
	Urola Ikastola	B-Informatikako tresnen eta IKT erabileraren inguruko formazioa		x	Edurne
	Iraurgi	B-Portfolioaren atarian III B-IKT formakuntza	-Eskolako aldizkaria -Portfolioa abian II -Atzerriko ikasleentzako harrera pedagogikoa -Tutoritza leen hezkuntzan	x	Nerea
	Ikasberri	B-Haur masajearen prestakuntzaren zabaltea	-Eleaniztasuna. Ikasturte hasierako FIE ingeles murgiltze programa LH 5. mailan -Irizar eredu hezkuntza mailan.	x	Edurne

BERARIAZKO PROGRAMAK

IKT IKASTETXEA EREDU	Xabier Munibe BH
	Urola BH
	Zumaia BH
	Lizardi BH
	Orokieta LH
	Zaragueta
BIZIKIDETZA	Lizardi BH
	Zumaia BH
	Zaragueta
KALITATEA	Xabier Munibe BH

4.2.4.-ZUZENDARITZA

- Hezkuntza Saileko Berrikuntza zuzendaritzatik Orientabideen bidez agindutakoa :ildo nagusiak bultzatu, erreferente lana sakondu, programekiko ardurak banatu.
- Kudeaketa pedagogikoa :eguneroko lana bermatu egutegia eta ordutegia errespataziz, barne koordinazio bultzatu batzorde desberdinak eratu beharren arabera, UEP eta Memoria gauzatu, ikastetxeen inguruko koordinazioa bermatu, ikastaroen kudeaketa.
- Aholkularitza : erreferente lanak gauzatu, zuzendari berriei lagundu, Prestakuntza eta Berrikuntza proiektuen inguruan lan egin
- Kanpo formakuntza: zuzendari mintegia gidatu, zuzendarien bilera orokorrak bultzatu, Berriargi taldearen parte izan, zuzendari berriei formakuntza eskaintza.
- Barne formakuntza : IKT formakuntza bultzatu, HNormalkuntza plana egin ,HEBI ildoarekin hasi.
- Programa batzuekin parte hartze zuzenagoa : Kulturartekotasuna Gipuzkoako eskolaratze batzordearen bidez, HPB programarekin eskuhartze zuzena Berritzeguneko kideekin eta HBEekin.
- Barne Koordinazioko parte izan : dokumentalistarekin, Pedagogi batzordean, IKT batzordean, klaustroan...
- Kanpo koordinazioa : Lurraldean, Erkidegoan, Udaletxean, Foru Aldundian, Ingurugela, Isei...
- Kudeaketa ekonomikoa eta egoitzarena : erosi, ordaindu, kontabilitatea eraman, likidazioak aurkeztu , beharrak konpondu, berritu, mantendu...

4.2.4.1 Jardunaldiak

- Konpetentziak eta Currículum berriaren inguruko Jardunaldiaren prestakuntza eta gauzaketa Donostiako urriaren 18an, Gipuzkoako Berritzeguneetako zuzendarien artean.
- Gipuzkoako Berrikuntza Proiektuen inguruko VII Jardunaldien gauzaketa

5.-BALIABIDEEN KUDEAKETA

Mediateka

Ikastetxeetatik mailegutzan eraman dezaketen materialaren kudeaketa idazkari dokumentalistaren arduetako bat da.

Material horren barruan mediatekan zentralizatuta ditugun, liburu, bideo, CD eta DVDak daude.

Gobernutik bidaltzen duten materiala Abies programan sartu eta dagokion aholkulariari berri ematea ere, idazkariaren ardura da.

Joan den ikasturtean, Abies programan sartuta zegoen guztia Berritzegunearen web-orrian eskegi zen. Honela, daukagun materialaren berri izan dezakete eskoletan.

Mailegutzan hartzen de materiala, hamabost egunez eduki dezakete eskolan Horretaz gain, mediatekatik kanpo, zenbait aldizkariaren harpidedun ere bagara eta horiek ere eskuragai dituzte: Aula Infantil. Aula, Cuadernos de Pedagogía, Argia, Hik Hasi, Elhuyar, HABE,OGE-Organización y gestión educativa) eta GRAO bildumako Textos, UNO, Eufonía eta Iber.

Aldizkariak Berritzegune sarreran egoten dira apaletan

Ikastaroen agiriak

Hamar ordutik gorako ikastaroek agiria izango dute.

Agiri hauen eskuratzea idazkariaren arduetako bat da. Beraz, bide desberdinak erabiliz, jabeari iritz dakion saiatuko da : mintegi arduradunen bidez, telefonoz, e-mailez..

Postaren kudeaketa

Posta jaso eta jabeari eskuratuko dio idazkariak.

Horretaz gain, bai postaz, e-mailez edo Faxez bidaltzen edo jasotzen denari, sarrera edo irteera ematen arduratuko da.

EHAA

Boletina eguneo irakurtzea eta dagokiguna inprimatu eta arduradunari jakinaraztea ere

Idazkariaren ardura da

7.-BARNE ANTOLAKETA

7.1- ZUZENDARIA /IDAZKARI DOKUMENTALISTA

Koordinazio naturala eta egunerokoa , batez ere, kudeaketarako eta pedagogi batzordeak prestatzeko.

7.2 – KLAUSTROA

-Ikasturtearen hasieran, irailan, maiztasun handiz bilduko da Klaustroa Konpetentzien inguruko azalpen orokorra prestatzeko eta ildo berrien aurrean erronkei erantzuteko.

-Partaide guztiak bilduko gara hil eta erdiro , Gabonetan, Aste Santuan eta ikasturte amaieran denon artean egindako lanaren ebaluaketa eta hausnarketa egiteko, horren araberrako aldaketak hurrengo hiruhilabeterako planteatuz. Azkenik beharrezko ikusten diren gaien inguruan autoformakuntza egiteko , kanpoko formakuntza jasotzeko edota prestatzeko.

Prestakuntza eta Berrikuntza proiektuen inguruko erizpideak bateratzeko eta balorazioak emateko.

7.3- BATZORDEAK

7.3.1- PEDAGOGIA BATZORDEA

Batzorde hau zeregin pedagogikoak antolatu eta kudeatuko dituen ohiko organoa izango da. Programen dinamizatzailea, urteko jarduera planaren jorratzailea, Hezkuntza sailetik jasotzen diren mezu, aginte , informazio eta abarrekoen aztertzailea , suspertzailea eta hedatzailea. Barne eta kanpo ebaluaketa programa asmatuko duena. Diru kontuen onarpena egingo duena eta bizikidetzaz arduratuko dena. Berritzeguneko pedagogi eta barne formakuntza lanaren bermatzailea eta sortzen den lanaren banatzailea. Zonalderako prestakuntzaz arduratuko dena. Batzorde Pegagogikoak lanak emango dizkie beste Batzordeei beharrezkoa ikusten badu eta haiengatik jasoko du informazioa. Batzordea hilean behin bilduko da eta premiazkoa ikusten denean batipat ikasturte hasieran eta amieran.

Partehartzaileak

- Zuzendaria
- BHko etapa aholkularia
- HPBko kide bat
- HNko aholkularia
- Idazkari dokumentalista

Koordinazio egutegian adierazita ikusi daitekeenez, hileko lehen ostirala aurrakusten dugu ohiko Pedagogi Batzordearen bilera egitea. Ikasturtean zehar sor daitezkeen zenbait ga ren premuragatik edo beharrezkoa balitz, ezohiko bilera antolatuko genuke.

Beraz, ikasturte honetan, zortzi bat ohiko bilera izango ditugu.

7.3.2- PREMI BEREZIETAKO BATZORDEA

1- Aholkularien arteko koordinazioa:

Heziketa Premia Bereziko Aholkularien arteko koordinaketa astean behin egingo dugu, honako egiturarekin:

- Informazio eta materialaren trukaketa.
- kasuen amankomuneko azterketa.
- Lanaren banaketa
- Urjentziak
- Lurralde mailako koordinazio bileretan eta Berritzeguneko Batzorde Pedagogikoan ematen den informazioa, beste partaideei zabaldu, handik sortzen diren gaiak eztabaidatu, eta sortzen diren lanak bideratu.

2- Aholkularien formazioa eta koordinaketa:

Beste Berritzegunetako homologoekin bilerak egiteko aukera egonez gero, egingo ditugu. Oraindik zehaztu gabe dago.

3- Beste Berritzeguneetako Heziketa Premia Bereziko aholkulariekin koordinaketa: lurralde mailako koordinaketa bilerak hilean behin burutuko direnez, Berritzeguneak ordezkari bat bidaliko du, honek koordinatzaile lana egingo duelarik.

4- Ibiltariak diren fisioterapeuta, eta logopedekin ikasturtean zehar bilera orokorrak egingo ditugu (hiruhilabeteoro). Bilera hauen eginkizunak, hauek izango dira:

- Bai guk bai beraiek, zentruetatik jasotzen ditugun eskaeren azterketa.
- Elkarren artean daramatzagun kasuen azterketa eta jarraipena.
- Tratamendu zuzenak, altak, jarraipenak.... aztertu.

Honetaz aparte itinerante bakoitzak bilerak izango ditu zentroetako Heziketa Bereziko Aholkulari erreferentearekin ikasle konkretuen jarraipena egin ahal izateko.

Terapeuta okupazionalarekin, gutxienez ikasturtean hiru bilera orokorrak izango ditugu eskualdeko egoeraz hitz egiteko. Honez gain HPBko erreferente bakoitzak berarekin bilerak izango ditu komunean ditugun ikasleen jarraipen zuzena egin ahal izateko.

5- HLE (Laguntzaileak): bailarako eskola publikoetan dauden espezialistekin gutxienez lau bilera orokorrak egingo dira.

6- Berritzeguneko beste aholkulariekin

Ikasturtean zehar, ostiraletan, izango dugu unea zentroetako erreferente orokorra eta Heziketa Bereziko aholkulari erreferenteen arteko bilera orokorrak burutzeko, eskuhartzeak era egokiz koordinatu ahal izateko.

7.3.4.- BIZIKIDETZA BATZORDEA

Arduraduna: Edurne Iribar

Partideak: Juanma Rodriguez, Javier Azkoaga

Landuko diren gaiak:

- Bizikidetza proiektuen jarraipena eta ebaluazioa
- Bizikidetza plana
- Ikastetxeen eskaerak
- Formakuntza
- Besteak

Azaroan hasiko gara biltzen eta lehen bileran adostuko dugu egutegia


7.3.5- IKT BATZORDEA

- Beste aholkularieei ikastetxeen heldutasun teknologikoaren ereduaren ezaguaraztea, Berritzegune bertan plana aurrera eramateko Hezkuntzako Departamenduak zehaztuaren arabera.
- Berritzegune bertan IKT erabilpena bultzatu: bai pedagogiko eran bai administratibo eran.
- Identifikatu eta elaboratu aholkularientzat formakuntza plan bat, Berritzeguneak proposatutako heldutasun maila lortzeko.
- Proposatu Berritzeguneko teknologiko errekurtsoen ordutegiak eta erabilpenerako erak

Ekintzak hauexek izango dira:

- Berritzegunerako Heldutasun teknologiko eredu bat elaboratu. Hortarako hasieran diagnostiko bat egitea beharrezkoa da.
- Aholkularien profila zehaztu, egoera berrira egokitzeko.
- Plan bat diseinatu proposatutako eredu lortzeko.

7.4- Organigrama



8.-EGUTEGIAK

8.1- Koordinazio egutegia

07/08 IKASTURTERAKO BILEREN, FORMAKUNTZA SAIOEN ETA IKASTETXEAK TRATATZEKO EGUTEGIA

HIL.	EG	ORDUA	ORGANUA	FORMAKUNTZA
IRAILA	3	9,30	KLAUSTROA	
	27	9,30	KLAUSTROA	
URRIA	6	9,30 11.30	PEDAGOGI BATZORDEA KLAUSTROA	
	19	9,30	KLAUSTROA	
	26	9,30	IKT BATZORDEA BIZIKIDETZA BATZORDEA	HIZKUNTZA NORMALKUNTZA
AZAROA	9	9:30	PEDAGOGI BATZORDEA	HIZKUNTZA NORMALKUNTZA
	16	9:30	KLAUSTROA	HIZKUNTZA NORMALKUNTZA
	23	9:30		HIZKUNTZA NORMALKUNTZA
	30	9:30	IKT BATZORDEA BIZIKIDETZA BATZORDEA	HIZKUNTZA NORMALKUNTZA
ABENDUA	7			
	14	9:30	PEDAGOGI BATZORDEA	
	19- 20- 21	9:30	KLAUSTROA IKASTETXEEN BATZORDEA HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA	
URTARRILA	11	9:30	PEDAGOGI BATZORDEA	
	18	9:30		HIZKUNTZA NORMALKUNTZA
	25	9:30	IKT BATZORDEA BIZIKIDETZA BATZORDEA	
OTSAILA	1	9:30	PEDAGOGI BATZORDEA	HIZKUNTZA NORMALKUNTZA
	8	9:30		HIZKUNTZA NORMALKUNTZA
	15	9:30	KLAUSTROA	

	22	9:30	IKT BATZORDEA BIZIKIDETZA BATZORDEA	HIZKUNTZA NORMALKUNTZA
MARTXOA	7	9:30	PEDAGOGI BATZORDEA	HIZKUNTZA NORMALKUNTZA
	14	9:30	IKASTETXEEN BATZORDEA	
APIRILA	4	9:30	PEDAGOGI BATZORDEA	
	11	9:30	KLAUSTROA	
	18	9:30	PEDAGOGI BERRIZTAPE N JARDUNALDIK	
	25	9:30	IKT BATZORDEA BIZIKIDETZA BATZORDEA	
MAIATZA	9	9:30	PEDAGOGI BATZORDEA	
	16	9:30		
	23	9:30		
	30	9:30	IKT BATZORDEA BIZIKIDETZA BATZORDEA	
EKAINA	6	9:30	PEDAGOGI BATZORDEA	
	13	9:30	IKLAUSTROA	
	20	9.30	IKT BATZORDEA BIZIKIDETZA BATZORDEA	

.IKT formakuntzaren atala taulan ez da agertzen aurten modu sakonago baten egin behar denez , ezin dugu aurrez zehaztu. Izan ere, hemendik aurrera izango den formakuntza, lanpostu bakoitzaren profilarekin izango du zerikusia eta horren arabera antolatu beharko da aurtengo IKT formakuntza plana. Beraz, IKT Batzordeak egingo duen urriaren 26ko bileran antolatuko da formazio plana.

Dena den, hamabostean behin edo aurrakusten dugu gai honen inguruko formazioa.

8.2.Egutegi orokorra

2007-2008 EGUTEGIA		
HILAK	EGUNAK	JAIAK
IRAILA	19egun	Irailak 10 (Herriko jaia)
URRIA	22egun	Urriak 12 (Pilar)
AZAROA	19 egun	Azaroak 1 (Domu Santua) Azaroak 2(Jai zubia) Azaroak 26(Patroiaren eguna)
ABENDUA	13 egun	Abenduak 6 (Konstituzio Eguna) Abenduak 7(Jai zubia) Abenduaren 24tik 31ra (Oporrak)
URTARRILA	19 egun	Urtarrilaren 1etik 4ra (Oporrak)
OTSAILA	21 egun	
MARTXOA	11egun	Martxoaren 17tik 28ra (Aste Santuko oporrak)
APIRILA	22egun	
MAIATZA	20 egun	Maiatzak 1 (Langileen eguna) Maiatzak 2 (Jai zubia)
EKAINA	20 egun	Ekainak 26 (Herriko jaia)
UZTAILA	11 egun	
	197 egun	

OHARRA: Berritzeguneko aholkularien ordutegia 200 egunekoa da. Goiko taulan, 197 egun agertzen dira, bi herriko jai (Irailak 10 eta Ekainak 26) eta patrioiaren eguna (Azaroak 26) kendu ditugulako.

9./UEP- AREN ETA BERRITZEGUNEAREN EBALUAKETA

9.1.- EBALUATZEKO ALDERDIAK

Ebaluatuko diren alderdiak hauek izango dira:

- 1.- Jarritako helburuak, asmoak eta berritzegunearen funtzio orokorrak:
 - Programen araberako eskuhartzeak.
 - Etapen araberako eskuhartzeak.
 - Baliabideen kudeaketa.
 - Partaideen formakuntza eta beste berritzegunetako partaideen koordinazioa.
- 2.- Berritzegunearen barneko antolaketa:
 - Bakarkako organuak.
 - Taldeko organuak.
 - Lanerako erabilitako tresneria.

9.2.- IRIZPIDE OROKORRAK (ADIERAZLEAK)

- 1.- Jarritako helburuak, asmoak eta berritzegunearen funtzio orokorrak:
 - Berritzeguneko partideen inplikazio-maila Sailak lehentasunezko hartzen dituen programetan.
 - Irakasleek nolako parte-hartzea izan duten prestakuntza-jardueretako ikastaroetan eta mintegi didaktikoetan.
 - Berritzegunearen eta eskualdeko ikastetxeen arteko loturamaila, bai eta Berritzegunearen eta hezkuntzan aritzen diren beste erakundeen artekoa ere.
 - Ikastetxeek egindako eskaerekiko lortutako erantzun-maila.
 - Irakasleriarengandik jasotako aholkularitzarekiko betetasun-maila.
 - Ezarritako helburuak kontuan hartuta, prestakuntzako eta berrikuntzako planteamendu orokorrean: jardunaldietan, batzarretan, e. abarretan izandako parte-hartzea.
 - Berrikuntzaren rolari dagokionez, Berritzegunearen lanak geletan eta ikasleengan duen eragina.
 - Berritzegunaren lanaren eta eskualdeko kalitateko ikastetxe-kopuruaren arteko erlazioa.
 - Berritzegunaren lanak ikastetxeen kalitate hobetzeko duen eragina, ikastetxeen ezaugarriak et hasierako egoera kontutan hartuta.
 - Norberaren lanean izandako hobekuntza urratsak.
 - Berritzeguneko partaideek sortu duten materialak, ikastetxeetan lan egiteko tresnak, argitalpenak, artikuluak...
- 2.- Berritzegunearen barneko antolaketa:
 - Organuen funtzio orokorrak eta funtzionamendu zehatza (egindako bilerak, tratatutako gaiak, partaidetza...)
 - Organuen arteko koordinazioa.
 - Erabilitako tresneriaren erabilera, funtzionaltasuna...

9.3.- EBALUATZEKO TRESNAK

- Informazioa erregistratzeko:
- Akta desberdinak: barneko organuenak, irakasleen lan-taldeenak...
- Ikastetxeetan eta Berritzegunean irakasleekin zein beste erakunde edota pertsonekin egiten diren esku-hartzeen erregistro informatikoak, fitxak...
- Balorapenak egiteko:
- UEP hau bera: helburu orokorrak, zehaztutako asmoak eta esku-hartzeak, funtzionamendua...
- Joan zen ikasturteko memoria(k)
- Departamenduak emandako orientabideak eta berak bultzatutako programak.
- Berritzeguneak sortu daitezkeen beste tresnak.

9.4.- UNEAK

Ebaluaketa prozesuan une hauek aipa daitezke:

- Ikasturtean zehar.
 - Egindako esku-hartzeak eragingarriagoak bihur daitezzen eta behar diren egokitzapenak ezarri ahal izateko, lan dinamikan zehar, hauen garapenak etengabe aztertuko ditugu. Ikasturtean zehar kide eta batzorde bakoitzak izango du berak burututako eskuhartzeak Klaustroaren aurrean azaltzeko aukera eta betebeharra. Honela, urtean hiruzpalau aldiz bere arloan egindako lanaren berri emango du, hala nola, bere ardurapean dauden ikastetxeetako formakuntza proiektuen gauzatzearen berri. Azalpen hauek sistematikoak izanik beraien elaboraziorako lagungarri izan nahi duten tresnak izango dituzte, hau da, azalpenerako puntuak jasotzen dituzten gida orriak, zeintzu gero artxibatuta gelditzen diren hurrengo berrikuspenetarako.
 - Esanda geratu denez, Ikastetxe bakoitzean erreferentearenaz gain beste eskuhartzerik badagoen kontrastatzea eta hauen guztien zer-nolakoa aztertzea: nahikoa den ala indartu behar den, ondo bideratuta dagoen ala egokitu behar den, zailtasunak eta kritikak --baleude-- mahaigaineratuz, guztion inplikazioa eta lankidetzaren oinarri eta helburu.
- Lehenengo hiruhilabetearen bukaeran (abendua-urtarrila) eta ikasturte bukaera aldean (ekaina-uztaila).
 - Une hauetan, behar diren egokitzapenak ezarri asmoz, egindako eskuhartzearen garapena eta antolamenduaren alderdi guztiak aztertuz ebaluaketa orokorra egingo dugu. Ebaluaketa prozesuan, ikasturte bukaerako uneak izango du garrantzi berezia; bertan, ezarritako irizpide orokorrekin batera, aurreko urteetan egindako lanaren balorazioak kontutan harturik, datorren ikasturterako egokientzat jotzen dugun antolamendua, eta esku-hartzearen proposamen edo ereduak diseinatuko ditugu. Ebaluaketa une hau bukaerakotzat jo badezakegu ere, hurrengo ikasturterako hasierako ebaluaketatzat ere jo behar da gure ustez. Izan ere, irailean, hots, ikasturte hasieran, ebaluaketa une horretan hartutako eta kontsentsuatutako erabakiak, zein azken

momentuko aldaketak, hartuko ditugu kontutan eskuhartze ezberdinen planifikazio zehatzak egiterakoan.